

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Behin betiko onespena ematea Gasteizko "José Mardones" Barne Berrikuntzarako 4. Plan Bereziaren hirugarren aldakuntzari**

Hauxe erabaki zuen udalbatzarrak 2017ko maiatzaren 26an egindako aparteko osoko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko "José Mardones" Barne Berrikuntzarako 4. Plan Bereziaren hirugarren aldakuntzari.

#### Erabaki proposamena

"Jose Mardones" 4. Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren hirugarren aldakuntzaren proiektua ikusi da, zein Gasteizko Udaleko Hirigintza-Plangintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Kudeaketaren Zerbitzuak 2017ko martxoan idatzia baita.

2017ko martxoaren 17an, Tokiko Gobernu Batzarrak "Jose Mardones" 4. Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren xedapen aldakuntzaren proiektua onestea eta hirugarren xedapen-aldaketa horri hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Dosierra jendaurrean jarri zen hogei egunez, ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietan iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok egokitzen jotzen zituzten alegazioak aurkezterik izan zezaten.

Iragarkia 2017ko martxoaren 29ko ALHAOn argitaratu zen (37 zk.) eta 2017ko martxoaren 24ko El Correo egunkarian, eta dosierra aztertzeko eta alegazioak aurkezteko epean ez da ez alegaziorik aurkeztu.

Indarrean dagoen planeamendua azterturik, adierazi beharra dago 1997ko uztailaren 31ko Foru Dekretuak behin betiko onetsi zuela Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko dosierra, hain zuzen ere, lurra birkalifikatzeko eta 11. poligonoa "Jose Mardones" antolakuntza eremua zedarriztatzeko.

Gasteizko Udalbatzak 1998ko abenduaren 18an egindako ohiko bilkuran behin betiko onespena eman zion "Jose Mardones" 4. Barne Berrikuntzarako Plan Bereziari – hasiera batean 11. poligonoaren BBPB zena–, 11. Poligonoaren gauzatze unitatea zehaztuz, eta 1999ko martxoaren 12ko ALHAOn argitaratu zen.

2006ko irailaren 29an behin betiko onespena eman zitzaion Barne Berrikuntzarako Plan Berezia lehen aldakuntzari, eta urte bereko abenduaren 27ko ALHAOn argitaratu zen.

2009ko otsailaren 27an, Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren bigarren aldakuntzari eman zitzaion behin betiko onespena eta urte bereko martxoaren 27ko ALHAOn argitaratu zen.

Indarrean dagoen Vitoria-Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra 4. BBPBaren – Jose Mardones– eremuko fitxan, eta Jose Mardones" 4. gauzatze unitatean zehazten ditu hura gauzatzeko baldintzak.

Proposatutako aldakuntza honek xede du VL 3 espazio librearen eta ondoan dauden egoitzetarako RU 3 eta RC 5 lur-zatietako mugak benetako errealitatera egokitzea, eremuaren hegoaldean, hau da Federico Baraibar kalearen ondoan.

Plan Bereziak xedatzen duenez, nahitaez laga barrekoak diren lurzoruak desjabetzeko beharra du udalak, esku hartze zuzeneko lurzoruen kasuan.

Horien artean VL 3 espazio librea dago — 22,39 metro koadroko azalera trianguluarra, alde zurretik zeuden egoitzetarako bi lur-zatitan dagoena, RU 3 eta RU 5 –, Federico Baraibar kalearen iparraldeko espaloia zabaltzeko eta dimentsioa erregularizatzeko.

Desjabetzeko lanei ekitean, desjabetutako azalera gutxitzeko aukera dagoela ikusi da, hain zuzen ere espaloia gutxienez den 2,47 metroko zabalera jarrita, Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuaren ustez, hori aski baita.

Hartara, guztiz desagertzen da RU 3 lursailarengan zuen eragina, zein azken neurketaren arabera 4,69 metro koadrokoa zen, eta gutxitu egiten da RC 5 lursailarengan duen eragina, 17,65 metro koadrokoa izatekin 6,87 metro koadrorara pasatuz. Horretaz gain, lehen lursailaren hesia eta kontagailuen kutzak eraitsi eta berriz jartzeko beharra saihesten da.

“Jose Mardones” 4. Gasteizko Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren xedapen-aldaketa honi dagokion proiektuan honakoak jasotzen dira: aldaketaren xedea, ekimena, aurrekariak, proposatutakoaren deskribapena eta justifikazioa, indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, plan orokorrean zehaztutako parametroen eta zuzentarauen betetzea, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa, eta aldakuntzaren iraunkortasun ekonomikoa, baita dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua eta edukia.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan arautzen dira plan partzial eta berezien izapidetze eta onspena.

Aipatutako 2/2006 Legearen IV. kapituluaren seigarren atalak planeamenduaren aldakuntza eta berrikuspena arautzen du eta konkretuki 104. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen zehaztapenetan edozein aldakuntza egiteko plan mota bera erabili beharko da, baita zehaztapen horiek onesteko jarraitutako prozedura bera baliatua ere.

Udalbatzari dagokio antolamendu orokorrari hasierako onspena ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onspena ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua — 123.1.i artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamenduarekin bat etorritik, dosierraren parte diren hirigintzako agiriak haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen dutela, Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4.a) artikuluan aitortzen didan aginpidea baliaturik, Hirigintza eta Etxebizitza Batzordeak hau aurkezten dio Gasteizko Udaleko udalbatzari:

#### Erabakia

1. Behin betiko onspena ematea “Jose Mardones” 4. Gasteizko Barne Berrikuntzarako Plan Bereziaren hirugarren xedapen-aldaketari, dosierrera bildu den agiriarekin bat, non honakoak jasotzen diren: aldaketaren xedea, deskribapena, justifikazioa eta dagozkion ordenazio-planoak.

2. Erabaki hau argitaratzea, ALHAOn eta lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean iragarkiak jarritik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta berorren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskadiko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko maiatzaren 31n

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**